

GAIAK

JAVIER SAEZ ⓘ SOZIOLOGOA

«Eredu heterosexuala nagusitu da gizartean»

Javier Saez soziologoaren ustez, eredu heterosexuala krisian dela dioen iritzia «merkataritza gune batzuen propaganda da».

LUIS KARLOS GARCIA - GASTEIZ

Queer teoriaren arabera, generoa ideologiara erakitako zerbait da, gizezko edo emakumezko jaiotzeagatik izan beharreko gizarte rola zehaztu eta betikotzeko. Pentsamoldea 80ko hamarkadan sortu zen, Ameriketako Estatu Batuetan, hiesak eragindako homofobiaren indartze-ari eta feminismoaren eta sexu berekoen mugimenduaren gabeziei aurre egiteko asmoz. Queer ekimena, beraz, erreazio baten gisa abiatu zen, nortasun gay eta lesbiarrak asko direlakoan, eta muga estuak desegin behar direlakoan, arau heterosexualaren gainetik. Javier Saez soziologoa aditua da teoria honetan. Gasteizen hartu gaitu.

Queer teoria erreazio gisa abiatu zen. Urteak igaro ondoren, zer-nolako kritika egiten du gaur egun?

Queer aldatuz joan da, mugitzen den esparrua zabaldu egin baita. Hasierako kritika gay komunitateetan egitetik beste eremu politiko batzuetara iragan zen gero; adibidez, gorputzaren erabilerei edo transgeneroei dagokienez. Esparru kritikoa hedatuta, beraz, queer kritikarako tresna da gaur egun, zeharlerroa bezala ari dena, kultura gaytik harata-go joanda. Oro har, bere hartan dago, kasurako, ezkontzaren eredu heterosexualaren kritikak, baina jokatzeko esparru gehiagoz, eta, hortaz, karga politiko handiagoz ere bai.

Eredu heterosexuala krisian dagoela esango zenuke?

Ez. Hori merkataritza gune batzuek saldu nahi duten propaganda hutsa da; baina, niretzat, eredu hori nagusitu da gizartean. Ezkontzak eta gisakoek indartu egiten dituzte erakunde heterosexualak, esaterako. Bestetik, kontua da mundu heteroasexuak ez duela batere gogoeta kritikorik egin duen pribilegio eta botere handiko egoera dela eta.

Queer teoriari sailkapen finkoak haustearen oinarriak helburu; baina, adibidez, zenbait autokritikaren arabera, feminismoa inoiz baino gehiago ari da kategorizatzen. Zuk ere

uste duzu feminismoa okerreko bide-tik abiatu dela?

Mugimendu feministak egiteko garrantzitsua izan du, baina nik uste dut boterearen erabilera politikoaren gatibu geratu dela. Feminismoak emakumetasuna goratzera jo du modu naturalegi batera. Teoria postfeministek (Judith Butler edo Teresa de Lauretis) kritika bat egin dute; baina, funtsean, gaur egun feminismo instituzionala da nagusi, gizon eta emakumeen nortasunetan gertatutako hainbat eta hainbat aldaketa ahaztuta. Hortaz, genero indarkeriaren diskurtsoa berriro egin beharko litzateke. Niretzat, alderantziz da: generoa bera da biolentzia, subjektuei indarkeriaz inposatzen zaielako. Baina, tamalez, gogoeta hori ez da sustatu erakundeetan eta ez dago eztabaida serioirik feminismo jakin baten arriskuei buruz.

Eliza katolikoaren hierarkiak mobilizatzen duzu, sexu berekoen ezkontzak baimentzeko ekimenak izututa, familiaren ontasunak goratuz. Zer iruditzen zaizu?

Nazka ematen dit, Elizaren osagai homofobikoa zeharo azaleratu delako. Gaur egun integritate musulmanaz besterik ez da mintzatzen; baina, pare-parean, katolikoa ere pil-pilean dago. Hala ere, azken batean, *arrazoia* dutela iruditzen zait. Ezkontza,

FEMINISMOA

«Egiteko garrantzitsua izan zuen, baina boterearen erabilera politikoaren gatibu geratu da»

GIZARTE MUGIMENDUAK

«Ideiak falta dituzte eta zurrunduta daude. Diskurtso eta praktika politikoak nahiko agorturik daude»



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

familia eta gisakoak instituzio heterosexualak dira, beraienak, eta, ildo horretatik, queer ikuspegitik diot ez genukeela partu hartu beharko horietan. Beraiek sortu badituzte, beraintzat! Grazia pixka bat egiten du, dena den, nola ari diren ikusteak...

Zure liburu batek psikoanalisi eta queer teoria uztartu ditu. Nola?

Lotura korapilatsua du. Queer teoriaren egile batzuek baliatu zituzten psikoanaliaren zenbait alde, baina psikoanaliaren matxismoa salatu ohi dute. Beraz, nik marraztu dut eztabaidaren mapa hori, amodio-gorrotu sentipenez betea.

Queer psikoanaliaren Akilesen ta-koia dela diozu...

Hitz jokoa da. Esan nahi dut psikoanaliak arazo bat duela, homofobia instituzionala eduki izan baitu. Hortaz, takoa diot, psikoanaliak ez duelako ezer ikusi nahi izan bere maskulinitatea auzitan jartzen duenarekin. Horregatik, psikoanaliaren ahulunea dela diot.

Queer teoriaren ekarri onena dena auzitan jartzeko joera hori al da?

Hori du gaitasunik onena. Hasie-

ran esan bezala, jada ez da teoria bat, politikoki esku hartzeko era baizik. Horregatik, ez du aitor-men akademikorik nahi, adibidez, eta talde txiki askotan aritzen da gerrari edo nortasunei buruzko gogoetak areagotzeko. Boterearen kontrola ekiditen saiatzen da, baina. Izaera subertsibo bizia du politena, arau heterosexuala auzitan jartzen duten azpikulturei adi.

Gizarte mugimenduetan aritu zara beti. Ez du ematen garai onenaren daudenik.

Gizarte mugimenduek ideiak falta dituzte eta zurrunduta daude. Diskurtso eta praktika politikoak nahiko agorturik daude, sistemak disidentziak barneratu dituelako. Berez, ihesbideak topatzera behartuta gaudu. Queer teoria lanean ari da sexualitate, genero edo gorputzaren teknologiarekin zerikusia duten kontuak aktibismoan sartzeko. Sexua, bigarren planoan geratu ohi bada ere, esku hartze politikorako tresna baita.

Info **Bilbao**

UDALA • AYUNTAMIENTO

Kultura Sailak enpresa laguntzaile bat hautatuko du ARATUSTEAK/CARNAVALES 2005 aldizkaria egiteko, Barrainkuako Kultur Etxean, Aste Nagusiko bulegoa, Barrainkua Kalea 5, 48009 Bilbao, eskura dauden baldintzen arabera.

Eskaintzak aurkezteko epea hamar laneguneko izango da iragarki hau egunkarietan argitaratu eta biharamunetik hasita.

www.bilbao.net